



## Bertsolariei buruzko II. ikerketa egingo dugu

Gaur egungo bertsolarien argazkirik ahalik eta zehatzena osatzea du helburu. 1987koa da eginda dagoen antzeko ikerketa bakarra.

Bertsolariei buruzko nondik norakoak jasoko dituen ikerketa prozesua jarri dugu martxan, Bertsozale Elkarteko sustapen, hezkuntza eta ikerkuntza estrategia eraginkorrak irudikatzen lagunduko digulako. Ikerketaren parte kuantitatiboari dagokion galdetegia sail, herrialde eta Ahalduntze Bertso Eskolak egindako ekarpenekin osatu da, beti ere 1987koa oinarri hartuta. Galdetegiak datorren azaroko lehen hamabostaldian igorriko diegu bertsolariei.

Mota horretako ikerlan bat egiten den bigarren aldia da; lehenengoa 1987an izan zen, JAKIN aldizkariak bere 44. zenbakian argitaratu zuena. Ordutik hona, ia lau hamarkada pasatu ostean, gizartea, bertsogintza eta bertsolariak eurak ere arras aldatu direnez, bada garaia egungo bertsolarien argazki eguneratua eduki eta kontutan har dezagun.

Inkesta diseinatzeko orduan 1987ko ikerketako galderak hartu dira kontutan, baina horrez gain, jende eta aditu ugari hartu dute parte diseinuan. Berariaz

eraturako batzorde bat aritu da ikerketa pentsatzen eta inkesta diseinatzen. Batzordeko kide dira Bertsozale Elkarteko hainbat borondatezko eta soldatapeko zein soziologian adituak diren EHUKo bi irakasle. Batzorde horrek hautatu eta formulatu du galdera sorta, baina aurretiaz orotariko ekarpenak jaso ditu eragile askorengandik: Bertsozale Elkarteko sailek, herrialdeetako elkarteek zein Ahalduntze Bertso Eskolako kideek hartu dute parte. Galdetegiak dituen 50 itaunak sei ataletan multzokatu dituzte: zu-hizkuntzak-kultura, bertsozaletasuna, bertsolari, bertsoeskola, Bertsozale Elkarte eta saioen antolaketa.

### Hedapena helburu

Ahalik eta laginik adierazgarriena nahi dugunez, inkesta bertsolarien talde zabal bati helaraziko diogu: Bertsolaritzaren Datu Basearen arabera 2022 eta 2023 urteetan gutxienez saio batean aritu ziren bertsolariek jasoko dute inkesta anonimoki betetzeko deia. Hala ere, gerta liteke galdetegia aipatu

baldintza betetzen duen bertsolari batengana ez iristea. Kasu horretan, galdetegiak bidaliko genioke eskaera eginez Bertsozale Elkartera deituta edo [ikerkuntza@bertsozale.eus](mailto:ikerkuntza@bertsozale.eus) helbidera idatzita.

AZTIKER Ikergunearen bidez bidaliko da galdetegia. AZTIKER bera jarriko da bertsolariekin harremanetan, azaroko lehen hamabostaldian. Erantzun guztiak jasotakoan, horiek landu, ondorioak ateratu eta txostena idatziko du ikerketaren batzordeak. Ondotik, txosten hori bera baliatuko du ikerketaren bigarren atala, kualitatiboa, diseinatzeko; hots, banakako elkarrizketak eta tailerrak.



ENEKO LAZKOZ MARTINEZ

URRUÑA 2024-10-04

ERREXIL SARIKETAKO TXAPELDUNA

Doinua: *Norbere mundu intimo*

Bertsokide, bertsozale esker onez besarkada hain goxo hartu izana saririk ederrena da plazan gutxi gabiltzanok kanta dezagun plazara ekarri gaituzulako eskerririk asko, Xilaba. Euskaldunok herri hontan antzekoak ez al gara? Plaz mugaturik dugun hamaika seme-alaba bakoitzak bere tokitik bakoitzak bere erara bultzatzen segi ditzagun bertsoa eta euskara. (bis)



Plazan dauden bertsolari motak zeintzuk diren jakitea du helburua. //XDZ/ Aratz Arzelus Aranburu.

# Finalistak prest daude Bardoen finalerako

**Urriaren 26an jokatu da finala, Garesen. Baztanzopak, Hor gu! Eta Mutilatuak taldeak ariko dira kantuan.**

Etxauriko, Irunberriko eta Tuterako finalurrekoak jokatu, osatu da Garesko finala. Baztango eta Bortziritako taldeen artean egongo da txapela, Baztango *Baztanzopak*, Bortziritako *Hor gu!* Eta Baztan-Bortziritako *Mutilatuak* taldeak ariko baitira kantuan. Garesko Zamariain Pilotalekuan izango da finala, urriaren 26an, arratsaldeko 17:30ean. Saioa bukatu eta gero festak jarraituko du gainera, afaria antolatu baitute Garesko Zubi XXI Sagardotegian. Saiorako zein afarirako txartelak [bertsosarrerak.eus](http://bertsosarrerak.eus) atarian daude eskuragai.

13 taldek eman dute izena aurtengo edizioan eta, horiez gain, antolakuntzarako prest egon diren beste 7 herri ere egon dira.

Horrela, 20 saio jokatu dira Bardoetan: 13 taldeen herrietan eta prest egon diren beste 7 horietan. Guztira, 91 parte-hartzaile egon dira: bertsolari, gai-jartzaile, antolatzaile, sukaldari eta abar.

Bardoen lehen txapelketa 2012an antolatu zen, eta ordutik bi urtean behin antolatzeko konpromisoa hartu zuen Nafarroako Bertsozale Elkartek. Aurtengoa zazpigarren edizioa izan da. Txapelketak auzolana eta talde lana jartzen ditu oinarrian, bertsolaritza sustatzeko beste modu bat sortu nahi baitu: gunee, plaza eta molde berriak jartzen ditu praktikan.



Lesakako saioa, irailaren 13an. //XDZ



Tafallako saioa, urriaren 4an. //XDZ

# Bertso-ikasturtea hasi dute **29.000** ikaslek

**Bertsozale Elkarteko hezkuntza arautuko proiektua martxan da Euskal Herri osoko ikastetxeetan; bertso-eskolak ere martxan jarri ditugu.**

Irailak, edo, udazkenak esanahi bat eta bakarra dauka gaztetxoek kasuan, ikasturte hasiera: martxan da 2024-2025 ikasturtea eta berarekin batera Bertsozale Elkartean hezkuntza proiektua. Euskal Herri osoko ikastetxeetan eskaintzen ditugu bertsozalaritza eskolak: aurtengo ikasturtean 7 herrialdeetako 241 herri eta 547 zentrotan egongo da proiektua, eta 29.000 ikasle eta Bertsozale Elkarteko 57 irakasle barnebilduko ditu.

Bertsozale Elkarteko transmisio saileko proiekturik handiena da hezkuntzarena, arautua zein aisialdiko. Hain zuzen ere, aipatutako datuez gain, hezkuntza arautuaz kanpo ere eskaintzen ditugu

bertso-eskolak: 119 herritako 1.055 hurrek hartzen dituzte bertso eskolak eta 450 helduk.

Proiektu horien dimentsioa eta garrantzia kontuan hartuta, Bertsozale Elkartean beste lanetako bat da eskola horietarako materiala sortzea. Horretan dihardugu aurtengo ere, eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako ikasleentzako bertso-sortak sortzen gabiltza. 9-18 urte bitarteko ikasleentzako materiala da, bertsozalaritza irakasleek sortu dutena eta formatu ezberdinak izango dituen. Kuxkuxeatu nahi izanez gero, [www.bertsoikasgela.eus](http://www.bertsoikasgela.eus) atarian aurkituko dituzue sorta berriak.



Euskal Herri osoko 547 zentrotan ematen ditugu bertsozalaritza eskolak. //XDZ

## 'Sormenean hezi, kulturen bizi III' jardunaldiak egingo ditugu urriaren 26an Azpeitian

**Kultur Sorkuntzaren Transmisioa taldeak, Bertsozale Elkartearen kide denak, hirugarren jardunaldiak antolatu ditu urriaren 26rako Azpeitiko San Agustin Kulturgunean. Aurtengo jardunaldietan komunikabideak izango dira protagonista.**

Euskarazko kultur sorkuntzaren transmisioari buruzko hirugarren jardunaldiak antolatu ditugu: Azpeitiko San Agustin Kulturgunean izango da Sormenean Hezi, kulturen bizi III. jardunaldia, urriaren 26an. Bertsozale Elkartearen talde antolatzaileko kide da, kultur eragile askorekin elkarlanean, Kultur Sorkuntzaren Transmisioa ekimenaren baitan. Aurtengo edizioan hedabideak izango dira ardatz: transmisioan eragiten ote duten eta nola eragin dezaket aztertuko dugu.

Egun osoko egitaraua dakar aurtengo jardunaldiak, eta aditu ugari hartuko dute parte. Goizean hasita, kultur sortzaile eta kazetariak mahai inguruan eratu dute *Zertan da euskarazko kultur sorkuntzaren komunikazio-jarduna?* galderaren inguruan. Arratsaldean, nazioarteko kultur kuotez eta Espainiako ikus-entzunezko lege berriaz ariko dira.

[Bertsozale.eus](http://Bertsozale.eus) webgunean dago jardunaldiei buruzko informazio xehatua, baita UEUrean ere; azken honetan eman daiteke izena, urriaren 25a bitarte.



## Puntu jarrita

JOSEBA SANTXO URIARTE

Aupa, Joanes. Beiondeiala! Ahaleginduko nok hire puntu erantzun bikainari taiuzko jarraipena emoten. Ez da makala, egitari zor, egungo bertso-eskolek aurrean duten erronka geroari begira. Egia da, baina, iraganean beste hainbat ataka gaitzo garaitzeko gai izan garela. Alde horretatik, beraz, baikorrak izateko moduan gara. Gaur egun, gozamina -bitxia badirudi ere- garesti samar dago. Hainbat hesi gainditu behar izaten ditugu gozamenera iristeko; batzuk fisikoagoak (denbora falta, ordutegi zailak, lekualdatu beharra...), psikologikoagoak bestetzuk (estresa, neke psikikoa, presio soziala...). Joanesek itzel deskribatu du bertsoaren egitearen plazer xumea, terapeutikoa gerta daitekeena egungo gizartean. Baina basamortua igaro beharra dago oasi goxo horretara heltzeko! Erronkaren gain zentraturik, nik esango nuke bertso-eskola mailan, txapelketetatik eta goi mailako asmoetatik harago, lagunarte giroan biltzen jarraitu behar dugula -gelan, aretoan, tabernan zein kalean-, gazteenak gure gozamen xume bezain eder horren lekuko eta partaide zuzen izan daitezten. Gure Trino txiki handiak esaten zuen legez, batez ere ondo pasatzea izan behar luke helburu nagusi bertso-eskolaren martxak. Baina Joanesek maisuki marraztu duen egitura simple eta autoantolatua bertso-eskola mailan era egonkor, eraginkor eta erakargarrian eskaini ahal izateko bihar-etziko bertsozaleei, bertso-eskolek sendoak beharko dute izan, eta horrek beste gai batera garamatza ezinbestean: atzo eta gaur bertso-eskolen oinarri eta motor izan den eta baden militantziari eutsi beharra. Horregatik, Nerea, gustatuko litzaidake jakitea nola daramazuen militantziaren kontua zuen inguruko bertso-eskoletan. Egongo da gurditik musutruk tiratzeko bolondresik etorkizunean?

# Koplak

## Iruñeko Bertso Paper Lehiaketako izen-ematea zabalik dago

Nafarroako Bertsozale Elkartek eta Iruñeko Udalak elkarlanean antolatzen dute lehiaketa, eta aurten bosgarren edizioa du. Hiru kategoria daude lehiaketan: txikiena (2011 edo ondoren jaiotakoak), gazteena (2007-2010 artean jaiotakoak, biak barne) eta helduena (2006an edo lehenago jaiotakoentzat). Izen-ematea Iruñeko Udalaren Kultur Sailaren webgunean egin daiteke, azaroaren 29ra bitarte.

## Poto-Finixa



Zuzendaritza zuzentzen

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Martxan da Bertso pilota ekimena

Irisarriko Gure Doia trinketeen hasi zen Bertso pilota ekimena urriaren 19an. Pettan Prebende eta Irantzuz Idoate bikotea Joanes Etxebarria eta Ortzuz Idoate bikotearen aurka aritu ziren pilotan eta bertsoan. Hurrengo saioa Arbonako Biltoki trinketeen izanen da azaroaren 2an.



PUBLIZITATEA